



TXINTXARRI

Ereindakoa jasotzen hasi dira

Mendeurrenaren ospakizunari ekin dio Ormazabal loradendak, jarduera eder batzuk eta ekitaldi hunkigarri batekin / 8-9

Elkartasuna adierazteko ekimenak

Elkarretaratze eta liburu aurkezpen bana aurrera eramango dituzte Mendebaldeko Saharako herritarren alde / 6

EH Bilduren jardunaz eta aukerez aritu da herritarrekin Mertxe Aizpurua diputatua, Mirentxun / 3

Pornografiak nerabeen sexu heziketan duen pisuaz hausnartu dute gurasoek / 4

Gizonek parekidetasunaren bidean izan ditzaketan aukera eta korapiloak hizpide / 5

Bederatzigarren bertso saio literarioa aurrera eraman du Irakurle Txokoak, Xirimirin / 7

Ostadar SKTko atletak, bikain Espainiako zein Euskadiko txapelketan / 10

Giro ederrean lehiatu dute Gipuzkoako Eslalom txapelketa gurpil aulkian, Lasarte-Orian / 11

goi maila eta
espezializazioa

martxoak 5 17:00etan

asteartea

erdi maila

martxoak 7 17:00etan

osteguna

USURBILGO LANBIDE ESKOLAko

ATE IREKIAK

IZENA EMAN

tel. 943-36 46 00

WWW.LHUSURBIL.EUS



CIFP USURBIL LHII



Emantzipatzeko arazoez jarduteko komiteak

Buruntzaldeko GKSken zenbait hitzordu aurrera eramanez egunotan, eta hilaren 23rako beste bat iragarri du, Lasarte-Orian; Gazte langileek emantzipaziorako ezintasunaren aurrean komiteak deitu ditu hilaren 23rako. Gaztelekuan izango da hitzordua, 19:00etan

Txintxarri

Gizartea polarizatzen ari dela nabarmendu du Lasarte-Oriako Gazte Koordinadora Sozialistak, eta honako adierazpenak gehitu: "Gehiengo geroz eta pobregoa den bitartean, gutxi batzuen eskuetan kontzentratzen ari da aberastasuna. Ezkerreko politikari profesionalak, gehienduenak gehien ordaintzearen lemapean, enpresariaren logikari erantzuten diote, horiek irabaziak izaten jarraitzea ahalbidetuz". Horrela, jomuga enpresariaren irabazietan jarri behar dela azpimarratu du, eta, gehitu, langileen izerditik lortutako irabaziak

GAZTE LANGILEOK LEHEN LERRORA!

EMANTZIPATZEKO EZINTASUNA BORROKATU!

LAN EGUNA

OTS KONTRAKANTXA
15. GAZTETXEA 18:00

KOMITEAK

HERNANI
OTS KONTRAKANTXA
17. GAZTETXEA 11:30

ANDOAIN
OTS IGARA 11:00
18.

LASARTE
OTS GAZTELEKUA 19:00
23.

Buruntzaldea

Hilaren 23an aurrera eramango ditu GKSken komiteak, gaztelekuan. BURUNTZALDEKO GKS

desjabetzea eta sozializatzea dela pobrezia-rekin amaitzeko modu bakarra.

Gazte langileei "langabezia kronikoa, aldizkako lanak, behin behinekotasuna eta soldata baxuak" ezartzen dizkietela ere azaldu du, eta hori hala izanik, askorentzat "egoera gogortzen eta estutzen" ari dela ohartarazi du. "Bitartean, enpresari handiek inoizko irabazirik handienak izan dituzte. Gizarte kapitalista eta berau kudeatzen duten politikariek, ezintasunean oinarritutako bizi eredura kondentatzen gaituzte", gaineratu du.

Bizi bitartekoak eskuratzea ere, geroz eta zailagoa dela ere aipatu du, eta, esan, prezioen igoeraren eraginez, langileen soldadak "geroz eta balio baxuagoa" daukela. Era berean, supermerkatuen egoera ere plazaratu du: "Horien irabaziak handitu egin dira. Eroskik aurreko urtetik, %70ean handitu ditu bereak".

Emantzipatzeko zailtasunak

Gazteek emantzipatzeko dituzten arazoez ere mintzatu da.

Ohartarazi du oinarrizko gastuei eta alokairuari aurre egiteko, "batez besteko soldata baino gehiago" bideratu behar dugu. Banketxeen egoerari ere erreparatu dio: "Errekorreko urtea egin dute. Espainiako bankuek 26.000 milioi euroko irabaziak metatu dituzte 2023an".

Bide horretan, enpresari handiei eta bankariei aurre egin, eta "ezarri dieten pobrezia eta askatasun eza gainditzeko" antolatuta eta borrokatu behar dutela ere azpimarratu du, eta zentzu horretan deitu ditu hilaren 23ko komiteak, "egoera desnormalizatu eta errudunak seinalatzeko". Hain zuzen ere, Lasarte-Orian gazteek emantzipaziorako duten ezintasuna landuko dute bertan: "Guztion ahoetan dago alokairuaren neurritz kanpoko prezioa, edota metro karratuaren eskusibotasuna. Horregatik herriko gazteei deia zabaltzea nahiko genieke komiteetan parte hartzeko. Eduki ditzaketen gaiaren inguruko kezak eta arazoak modu kolektibo batean aurre egitera begira".

Gazteen emantzipazioa errazteko proiektua

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura departamentuak eta Lasarte-Oriako Udalak adostu dute egun Maialen Chourraut kirolegia dagoen lur eremuan eraikitzea apartamentuok; kirolegi hori erabilgaitz geratu eta gero abiatuko dituzte obrak

Txintxarri

Agustin Valdivia alkateak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura zuzendari Pablo García Astrainek Gipuzkoako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak egingo duen esku hartze berriaren xehetasunak aurkeztu berri dituzte. Alokairuko apartamentuak eraikiko dituzte; 60 eta 80 artean izango dira, eta apartamentu horiek, beren ezaugarriengatik, bereziki egoikiak izango dira emantzipazio prozesuan dauden gazteentzako, baita "etxebizitza baten beharra" duten beste kolektibo batzuentzat ere. Udal korporazioak

hilaren 21ean aurrera eramanez egunotan, eta hilaren 23rako beste bat iragarri du, Lasarte-Orian; Gazte langileek emantzipaziorako ezintasunaren aurrean komiteak deitu ditu hilaren 23rako. Gaztelekuan izango da hitzordua, 19:00etan

hilaren 21ean aurrera eramanez egunotan, eta hilaren 23rako beste bat iragarri du, Lasarte-Orian; Gazte langileek emantzipaziorako ezintasunaren aurrean komiteak deitu ditu hilaren 23rako. Gaztelekuan izango da hitzordua, 19:00etan

Hitzarmenaren bitartez, Lasarte-Oriako Udalak 3.069 m²ko kirol ekipamendurako lur zatia doan utziko dio Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Departamentuari (udal kirolegia jardunean ez dagoenean). Horrela, Etxebizitza saila arduratuko da plan berezia idazteaz, behar diren proiektuak egiteaz, kirolegi zaharra eraistez eta eraikitzea lanak egiteaz. Beheko solairua, lehen solairua edo erdisotoa duten lokalak, etxebizitzak eta horiekin parekatutako garajeak eraiki ondoren, dohainik utziko zaizkio udalari, horiek erabil ditzan.

ritzaren Etxebizitza Departamentuari (udal kirolegia jardunean ez dagoenean). Horrela, Etxebizitza saila arduratuko da plan berezia idazteaz, behar diren proiektuak egiteaz, kirolegi zaharra eraistez eta eraikitzea lanak egiteaz. Beheko solairua, lehen solairua edo erdisotoa duten lokalak, etxebizitzak eta horiekin parekatutako garajeak eraiki ondoren, dohainik utziko zaizkio udalari, horiek erabil ditzan.

Bost urteko egonaldiak

Gehienez ere bost urtez bizi ahal izango dira maizterrak eraikiko dituzten apartamen-



Garcia Astrain ezkerrean eta Valdivia eskuinean, elkarri eskua ematen. TXINTXARRI

tuetan. Hilero alokairua ordaindu beharko dute, baina erakundeetako ordezkariak azaldu dutenez, horrek ez du gaindituko pertsonaren diru sarreraren %30a. Proiektuaren ezaugarriak direla-eta, bereziki gazteei zuzenduta dagoela nabarmendu dute, eta hori hala izanik, esleipen prozedura hasten denean, apartamentuen %40a, gutxienez, haiei bideratuko dietela azpi-

marratu dute. Eskaintza horretan parte hartu nahi dutenek Etxebiden izena emanda egon beharko dutela ohartarazi dute, eta, gaineratu, udalerrian errol-datuta daudenen lehentasuna izango dutela.

Basaundi bailarako birgaitze lanak eta alokairuko parke publikoa ere izan dituzte ahotan; albiste osoa www.txintxarri.eus web atarian irakurgai.

EH Bilduren jardunaz eta aukerez hitz egin du

'Erabaki etorkizuna' lelopean, Espainiako Kongresuko diputatu Mertxe Aizpuruarekin solasaldi irekia antolatu du Lasarte-Oriako EH Bilduk. Hogeita hamar bat herritar joan da Mirentxura ordezkari politikoa entzun, eta hala nahi izan dutenek, beraien kezka galdetzer

Txintxarri

EH Bilduk dituen erronken gainean Uxue Loinazek egindako galderei erantzun zien lehenik Aizpuruak. Azken aldiaren gauza asko eta azkar gertatu direla nabarmendu dzuen diputatuak eta oraindik ere zabalik dagoen aukera leihoa aprobetxatzeko parada baliatu beharko luketela. Hiru ardatzetan kokatu du lor daitekeena: gatazkaren ondorena, gatazka soziala eta lurraldetasun-nazio aitortza.

Arlo sozialean "lorpen handiak" izan direla gogoratu zuen, pentsio, etxebizitza edota alokairuei dagokienean, EH Bilduk "presionatu" eta zenbait neurri hobetzea lortu dutela ere zehaztuta. Horri esker, Euskal Herrian eta hemendik kanpo alderdiaren irudia "hobetu" dela ere gehitu zuen. Lurraldetasunean, "apenas mugitu da ezer", baina agintaldi honetan bide bat martxan jartzeko aukera izango delakoan dago. "Prozesu luzea da. Konbentzimendu asko eta lan handia egin behar da. Babesa zabaldu eta herriaren planteamendua egin behar da; hemen zerbait erabakita eta babes nahikoa izanda, Madrilera joan". Hortaz, aurrerapausoak emateko garaia dela uste du.

Lau urteotan independentismoaren jardunak, bai katalanenak



Mertxe Aizpuru, Mirentxura bertaratutakoekin solasean. TXINTXARRI

bai euskaldunenak, "erregimenaren josturak urratzen" ari dela uste du Aizpuruak. Madrilgo dinamiketarik urrunduz, fokuetatik kanpo, diskrezioz, aritza nahiago izan dute abertzaleek. "Gauzak tenkatu" eta "mezuak bidaltzea" oso ohikoa bada ere, politika egiteko beste modu baten alde egin dute, eta, horri esker, gerora, "fidagarritasuna, seriotasuna eta konfiantza" lortu dituztela sentitzen du Aizpuruak.

Egindakoaz hitz egiteaz gain, etorkizunera begira ere jarri dira. Ustez laster deituko dituzten Eus-

ko Jarlaritzarako hauteskondeei dagokienean, baikor da Aizpuruak. "Hauteskondez hauteskunde gora egin dugu eta gurekin gelditu den bozka da". Podemosek izandako "uneko esplosiotik" gainbeherara egindako bilakaerarekin alderatuta lortutako bozka mantendu, eta inkesten arabera, berriak gehituko dituzte. "Sendo" ikusten du EH Bildu eta herrietan egindako lanari esker, alkatetza eredu desberdina edota oposizioa egitekoa, jende askok koalizioa beste modu batera ikusten duela sinetsita dago.



NEURE KABUZ
AIZPEA AMAS

Itsaspeko munstroak


Talasofofia. Hala deitzen zaio itsasoaren handitasun eta sakontasunari beldurra izateari. Liburutegirako bisitatetako batean, CIMASUB itsaspeko zinema zikloaren argazki erakusketarekin topo egin genuen Manuel Lekuona Kultur Etxean. Itsasoak betidanik eman izan dit errespetua, eta itsaspeko zer esanik ez. Ez dakit nire belaunaldiarekin zerikusia daukan zerbait den, baina *Titanic* filmaren ondoren, horrelako metalezko munstrotzarra ehunka metrotara itsas azpian iltzatuta irudikatzeak halako ezinegona sortzen dit.

Sentsazio berberarekin geratu nintzen CIMASUBen erakusketatik irteerakoan, baina talasofobiaz gain, beste zerbaitek ere eragin zidan, ezinegona. Itsasazpian itsasontzi edo hegazkin erraldoiez gain, bada bestelako munstroak, eta ez naiz ari Ilargi arrain edo marrazoei buruz; gizakiak eragindako munstroez baizik: latak, plastikoak, duntziak... lurrazalean sortu eta erabili ondoren, itsaspean bukatzen dute ehunka tona zaborrek, tarteka, baita arrainen sabelean ere. Greenpeaceen arabera, urtean 8 milioi tona zabor isurtzen dira itsasora; badakizue horiekin 800 Eiffel dorre eraiki ahal izango lirakeela? Eta hori gutxi balitz, hainbat zaborrek urteak behar dituzte guztiz desegiteko. Duela 500 urte, esaterako, Juan Sebastian Elkanok lehen aldiz munduari bira eman zionean plastikozko botila bat uretara bota izango balu, agian oraindik zatiren bat aurkitzeko moduan izango ginatke.

Itsaspean gertatzen denaz ez gara askotan jabetzen, baina itsasoa bere handitasunean gizakiaren jardueraren eraginpean dago. Noiz-behinka, lurrazalean ikusten ditugu ondorioak, plastikozko pelletekin gertatu bezala, eta orduan sortzen zaigu kezka eta beldurra. Talasofofia bada itsasoaren sakontasunari beldur izatea, antropofobia edo *gizakifobia* ote da itsasoak gizakiari diona? Aitortu beharra daukat, azken horrek geroz eta ikara handiagoa ematen didala.

Erakusketa, zabalik

Aurrera doa XVI. Cimasub Itsaspeko Zinema Zikloa. Azken emanaldia hilaren 26an egingo dute, astelehenarekin, kultur etxeko auditorioan, 19:00etan. Bestalde, antolatzaileek gogorarazi dute zabalik dagoela itsas hondoko argazkien erakusketa, eraikin horretako 1. solairuan. 29ra arte dago irekita eta hau da ordutegia: 17:00etatik 20:00etara.



TXINTXARRI

MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Aurpegiko eta gorputzeko azala

- ✓ BERROREKATU
- ✓ BERRESKURATU
- ✓ BIRSORTU



Ehunen birsortzea eta giharren indartzea tratamendu bakarrean.

Uistin Kalea z/g • Tel. 943-37 08 45 • Lasarte-Oria



TXURI-URDIN-era goaz
martxoaren 2an

LH3-LH4-LH5 eta LH6



Irteera: 16:30 Buelta: 20:00

Hipodromoko parking-ean

Prezioa: 16 euro Ttakuneko bazkideak

19 euro Ttakuneko ez bazkideak

Askaria, galtzerdi potoloak eta KASKOA (txirringa) eramana behar da

Plaza mugatuak dira!

Izena emateko:

aisia@ttakun.eus whatsapp: 695785392





Eider Goiburu psikologo eta sexu hezitzailea, hitzaldira bertaratutakoei azalpenak ematen. TXINTXARRI

Sexu heziketa, bizitza osoko prozesu bat

Treba Gurasoak egitasmoaren barruko hitzaldi bat aurrera eraman dute kultur etxeko hitzaldi aretoan: 'Pornografia gaur egungo sexu heziketa ote?'. Eider Goiburu adituak eman ditu horri buruzko azalpenak eta baita gurasoen iritzi eta ekarpenak jaso ere

Txintxarri

Kultur etxeko hitzaldi aretora bertaratutako gurasoen zain zegoen Eider Goiburu psikologo eta hezitzailea. Kontu tekniko guztiak prest izan zituenean gonbidatu zituen sartzera eta aulkiak jarrita zeuden moduagatik, igaritzen zen adituaren eta ikus-entzuleen arteko harremana ez zela norabide bakarrekoa izango. Izan

ere, borobilean jarrita zeuden eserlekuak, gutxinaka-gutxinaka gurasoek bete zituztenak, lantzerantz zihoazen gaiarekiko interesak erakarrira: *Pornografia gaur egungo sexu heziketa ote?* zen euskarazko solasaldiaren izenburu iradokitzailea.

Bere burua eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak sustatzen duen Tre-

ba Gurasoak egitasmoa aurkeztuta gaiari heldu zion Goiburuk, "beti" egin ohi duen moduan, galdera bat botata parean zituen: "Zer da sexualitatea?". Hasi ziren apurka-apurka iritziak ematen eta adituak proposatutako dinamikan sartzen. Definizio orokorra, hizlariaren arabera, hau da: "Izaera sexuala

bizitzeko modua da". Kontzeptu horrek hiru printzipio orokor dituela azaldu zuen segidan: gizaki guztiak gaila sexuatuak baina den sexualitatea ez dagoela errekonozituta gizartean; bizitza osoan zehar dugun ezagarririk bat dela; eta sexualitate anitzak ditugula.

Sexu heziketa

Sexualitateari buruz hitz egiteko teknika bera aurrera eraman zuen Goiburuk sexu heziketaren bueltan jarduteko: gurasoei galdetu zien ea eurentzat hori zer den. Ideia pare bat entzun eta gero honakoa esplikatu zien: bidelaguntza prozesu bat dela sexualitatea garatzeko, norberaren bizitzako aro bakoitzean kontuan izan eta jorratu beharrekoa. "Jaioberri batek sexualitatea du, heldu batek berdin, eta 90 urteko agure batek ere bai". Alor horretako formakuntza fase desberdinen multzoa izanik, azpimarratu zuen ez dela nahikoa etxean seme-alabekin elkarriketa bat izatearekin edota eskolan bi orduko jarduerak egitearekin. "Hori ongi dago, jakina, baina gehiago egin behar dugu".

Hauek dira sexu heziketaren hiru helburu nagusiak, Goiburuaren esanetan: autoezagutza, "lehen pausoa"; onarpena; eta adierazpen askea. Jarraian, gurasoei galdetu zien ea uste duten familiek gaur egun gai hori lantzen duten, eta orotarikoak izan ziren partaideen erantzunak: "Kebe" esan zuen batek; baietz beste batek, irmoki; haurrak zirenean beraiek jaso zutena baino gehiago lantzen saiatzen direla hirugarren batek; eta, laugarrenak, hitz egiten saiatu bai baina gaztetxoak direla ixten direnak, gizarteak ezartzen dizkien mugengatik.

Eskualdeko martxoko hitzorduak

Treba Gurasoak egitasmoak herrietan harrera "ona" izan duela ikusita, Buruntzaldeko udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak erabaki dute ekimena indartzea, 21 hitzaldi aurrera eramanda. Hauek izango dira martxokoak:

- **Martxoaren 5ean, asteartea, Urnietan, 18:00etan:** *Harreman osasuntsuak lagun artean*, Nerea Mendizabalen eskutik.
- **Martxoaren 13an, asteazkena, Andoainean, 18:00etan:** *Osasun mentala eta nerabeak*, Estibaliz Ansotegiren eskutik.
- **Martxoaren 14an, osteguna, Usurbilen, 17:30ean:** *Pornografia gaur egungo sexu heziketa ote?*, Eider Goibururen eskutik.
- **Martxoaren 21ean, osteguna, Usurbilen, 18:00etan:** *Komunikazioa familian. Guraso eta seme-alaben arteko harremanak eta komunikazioa hobetzen*, Leyre Canoren eskutik.

Aipatutakoari buruz jardun eta gero hasi ziren pornografiaren eta beste kontu batzuek hizketan, adituaren azalpenak eta joandakoen ekarpenak uztartuta.

EAGI eskola ezagutu dute Danok Kide elkarteko lagunek

Zenbait jarduera egin dituzte bisitan zehar, esate baterako, energia efizientziari buruzko tailer bat

Txintxarri

Danok Kide elkarteko 23 lagunek EAGI eraikuntza eskolaren zentroa ezagutu dute berriki. Bisita energia efizientziaren inguruko tailer batekin abiatu da eta bertan eraikinak birgaitze-

ko orduan kontuan izan beharreko irizpideen inguruan hausnartu dute partaideek. Segidan ikastetxeko tailerrak bertatik bertara bisitatu dituzte. Horren ondoren, nahi izan dutenek, 360 graduako betaurrekoen bidez,

obrak birtualki nola ezagutu daitezkeen esperimintatu dute. Bisitaldia hamaiketako txiki batekin amaitu dute.

TXINTXARRI-ren komunitatea

Albiste hau EAGIkoek beraiek prestatu eta argitaratu dute TXINTXARRI-ren atari digitalean, hedabidearen komunitateko kide direlako. Saretu nahi duten elkarteek erredakzioarekin jarri behar dute harremanetan, txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora idatzita.

KOMUNITATEA



Danok Kide elkarteko lagun ugari bertaratu ziren EAGIra. EAGI ESKOLA



Hitzaldi-tailerreko partaideak, Ibai Fresnedoren azalpenak adi entzuten. TXINTXARRI

Korapiloak askatzen ahaleginduko dira

Dozenaka gizonak parte hartu dute Borobilean Elkarteak eta Hiruki Larroxa kolektiboak elkarrekin aurrera eramandako 'Gizonak parekidetasunaren bidean: aukerak eta korapiloak' hitzaldi-tailerrean. Etorkizunean saio gehiago egitekotan dira

Txintxarri

Borobileaneko kide Joxe Mari Agirretzek egin die ongietorria Hiruki Larroxako kide Ibai Fresnedori eta hitzaldi-tailerrean etorri diren dozenaka gizonak. Azaldu du gaia jorratzeko premia ikusi dutela eta horregatik erabaki dutela otsaileko saioa horri buruz egitea, Oriarte Landabe-

rrri institutuan, gizonak parekidetasuna erdiesteko bidean gaur egun jokatzeko paperaz eta etorkizunean bete beharrekoaz gogoeta egiteko. Jarraian, Fresnedori galdetu dio ea zenbat kilometro egin dituen Euskal Herrian barrena aste honetan: "1.400", erantzun dio. "Hori bada gaiak sortzen duen interesaren

eta lantzeko premiaren seinale", esan du Agirretzek.

Fresnedok hartu du hitza segidan. "Hau arrakasta, ez nuen horrenbeste jende espero, egia esan", adierazi du. Horren ondoren Hiruki Larroxak gaur egun aurrera eramaten dituen lanildoen berri eman die parean izan dituen. Erabile horrek hainbat

prozesu ditu martxan herri ugartan, "urte osokoak". Haur eta gazteekin ere lanean ari dira hezkuntza zentroetan eta "arazo handiak" daudela adierazi. Dagoeneko jorratzen dituztenei beste lanketa bat gehituko diete laster, Zaballa eta Martuteneko kartzeletako presoekin biltzen hasiko direlako.

Gizonak parekidetasunaren bidean dituzten korapiloak eta aukerak hitz egiten hasi aurretik, ariketa praktikoa bat egitea proposatu die partaideei: bakoitzak bere izena esatean elkar ezagutzeko eta jorratu duten gaiarekin lotura duen kontzeptu bat botatzea. Hona hemen batzuk: erronka, kontraesanak, pribilegioa, protagonismoa, bidea, zaintza, ardura, desikakuntza, berdintasuna, etorkizuna... Saioan aurrera egin ahala hizpide izan dituzte horietako asko.

Lau korapilo

Lehen bilera hori, batez ere, gaia testuinguruan jartzeko baliatu dute. Gauzak horrela, lehen aipatutako ariketatxo praktikoa batzuk eta hitzartze batzuk egin dituzte, baina, batez ere, Fresnedo arduratu da azalpenak emateaz. Lehen zatian korapiloak buruz aritu da, zehazki, lau hauetaz: aurrerapen feministen aurrean agertzen ari diren erantzun eta mugimendu erreakzionarioak, berdintasun faltsuaren paradigma, polarizazioa eta

subjektua. Ideia bakoitza garatu eta adibideak eman ditu.

Plazaratu dituen hausnarke-tetako bat izan da gizonak "gerren klabea" ulertzen dituztela berdintasuna eta feminismoa: "Irabazi egingo dute batzuek eta galdu bestiek". Ikuspuntu hori baztertu eta eraldaketa sozialaren bidetik ulertzea da gakoa Hiruki Larroxako kidearen ustez, azpimarra jarrita "onuran, erantzukizunean eta askapenean". Horren ildotik, berebizikoa iruditzen zaio "berdintasun formal eta erreala" desberdintzea, bigarrena erdiesteko oraindik bide asko dagoelako egiteko. "Parekidetasun erreala lortu dugunaren sententzia faltsua da. Iruditzen zaigu emakumeak lan merkatuan sartu izanagatik eta etxeko lan batzuk egitearekin dena egin dugula eta asko geratzen zaigu egiteko estrukturalki eta sinbolikoki".

Ordu eta erdi inguruko hitzaldi-tailerren ostean parte hartu dutenen datuak bildu eta etorkizunean bilera gehiago egitekotan geratu dira Oriarte Landaberrira bertaratutakoak. Printzipioz, urtean bizpahiru.

"PAREKIDETASUN ERREALA LORTU DUGUNAREN SENTENTZIA FALTSUA DA"

Sanpedroetako omendu eta jarduerak proposa ditzakete

Parte hartze prozesu bana abian jarri du udalak herritarrek gai horiei buruz duten iritzia jasotzeko

Txintxarri

Ekainaren 28an hasi eta uztailearen 2an amaituko dira aurtengo San Pedro Jaiak, eta horiek gozatu aurretik, prestatu egin behar dira. Horrela, herriko festak diseinatzeko lanetan hasi da udala, eta horiek herritarrekin prestatu asmoz, bi parte hartze prozesu abiatuko dituela jakinarazi du: lehen, musika taldeak eta gainerako kultur jarduerak aukeratzeko izango da, eta, bigarrena, berriz, omendua hautatzeko.

Parte hartze prozesu horien berri eman dute berriki Agustin



Txema Valles omendu zuten ia. TXINTXARRI

Valdivia alkateak, Gazteria eta Festak arloko zinegotzi Txus Alonsok, eta, Parte Hartze sailko batzordeburu Nagore Duranek. Irigarri dute herritarrek martxoaren 3ra arte izango dutela euren ekarpenak bidaltzeko abagunea: batetik, proposamenak sarean egiteko aukera izango dute, udalaren web atariaren bidez (www.lasarteoria.eus); eta, bestetik, berriz, etxean jaso dituzten eskuorriak udal postontzietan (Emakumeen Zentroa, kultur etxea, Gaztelekua, udaletxeko arkupe zaharrak edo kiroldegia) utzita.

Bestalde, udal ordezkariak gogorarazi dute hirugarren parte hartze prozesu bat ere deituko dutela; herriko jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko, hain zuzen ere. Informazioa aurrerago zabalduko dute.



TXINTXARRI

Fokua, etorri berrien harreran

Maiatzaren 16an eta 17an aurrera eramango dute Udaltop Udaletako Euskara Zerbitzuen XVI. Topaketa, kultur etxean. Antolatzaileek aurreratu dute etorri berriak euskarara erakartzeko edota euskaldunak haiengana hurbiltzeko oinarri teoriko eta praktikak biltzen ari direla. "Gizarte eta hizkuntza politikak modu integratuan gauzatzeko bidean, etorri berrien harreran jarriko dugu fokua".

"Sahararren ezaugarri nagusia da erresistentzia"

KRISTINA BERASAIN TRISTAN KAZETARIA

Arnasa luzeko kazetaritzaren bidez eta konpromisotik egindako hogeitau urteko lanari liburu forma eman dio berriemaile nafarrak, euskaraz. "Plazera" izan dela nabarmendu du

Iñigo Gonzalez Sarobe

Kristina Berasain Tristan (Lizarrar, Nafarroa, 1973) kazetariak aurkezpenez beteta du egunotako agenda. *Sahara, herri bat erresistentzian* liburua plazartzeko saio horietako bat gure herriko Jalgi kafe antzokian egingo du, hilaren 29an, 19:00etatik aurrera.

Lehenik eta behin, Kristina, eskerrik asko TXINTXARRI-rekin hitz egiteko tarte bat hartu izanagatik. Egunotako agenda aurkezpenez beteta duzu...

Hilaren 26tik martxoaren 3ko asteen lau hitzaldi izango ditut. Tartetxoak bilatzen nabil saio horiek eguneroko lanarekin [kazetaria da *Berrria* egunkarian] eta bizitzaren beste alorrekin uztartzeko. Egia da lanpetuta nabilela baina era berean oso pozik nago liburuak izan duen eta izaten ari den harrerarekin. **Lau hitzaldi horietako bat gure herriari emango duzu. Zer aurkeztera etorriko zara?**

Sahara, herri bat erresistentzian liburuaz hitz egitera etorriko naiz. Arnasa luzeko kazetaritza bitartez egindako lan bat da. Gainera, herrialde horri buruz euskaraz idatzitako lehen lana da, oso harro esaten dut hori.

Bidaia bat da lan hau, Sahararen azken 50 urteak erreparatu dituen: kolonialismoa, okupazioa, exodoa, gerra, ez bake, ez gerra gisa ezagutzen den garaia eta guda berriro, azken hiru urteetatik gaur egunera arte. Azkenean, traizioz betetako historia ere bada saharar herriarena: Espainiako historiako beltzez idatzitako pasarte bat. Ez dugu ahaztu behar horrek jarraitzen duela izaten Mendebaldeko Saharako potentzia administratzailea. Deskolonizazio prozesua ez zen behar bezala egin.

Gatazka luze, anker eta ertz askotako bat aztertu duzu eta 'erresistentzia' hitza eraman duzu izenburura. Zergatik?



'Sahara, herri bat erresistentzian' lanaren egilea, ale bat eskuetan duela. K. BERASAIN TRISTAN

"IRUDITZEN ZAIT KAZETARIOK ZINTZOAK IZAN BEHAR DUGULA KONTATZEN ARI GARENAREKIKO"

Sahararren ezaugarri nagusia hori dela esango nuke, egoera oso ankerrak bizita ere horretan jarraitzen dutelako. Beraien duintasuna ere nabarmenduko nuke. **Izenburuaren azpiko argazkien emakume bat azaltzen da. Nor da?** Embarka Brahim Bumajruta (Aaiun, 1955). Nolabait, bere bizitzak erakusten du Mendebaldeko Sahararen historia. Bestalde, emakumeak sahararren erresistentziaren sinbolo bilakatu dira. Berari eta beste herriar batzuei hitza eta lekukotasuna emanda, haien istorioak herrialdearen historiarekin harilkatzen saiatu naiz.

Elkarrizketa batean irakurri dizut sahararren testigantzak direla liburuaren "altxorrik handiena".

Plazer bat izan da, hogeitau urteetako lana bildu dut liburuan. Haien bizipenak beraiek kontatzea bilatu dut, beti esaten dut

saharar bakoitzak izan dezakeela bere liburuak. Batetik, kanpalekuean ibili naiz euren hitzak entzuten tea hartu bitartean, haimaz haima; eta, bestetik, lurralde okupatuetan, giza eskubideen aktibistekin: Aminatou Haidar, Sultana Khaya, Brahim Dahane eta beste askorekin. Ez dugu ahaztu behar eremu horretan errepresiopean bizi direla eta debekatuta ditzutela haien identitate ikur guztiak erakustea, baita haima bat zutitzea ere. **Zergatik erabaki zenuen herrialde horretan gertatzen ari zena kontatzea?** *Berrria*-ko kazetaria naiz eta nazioarteko gatazketan lan egin dut urte askotan. Hedabide horretarako egin behar izan nuen lehen lana hori izan zen, 2005ean, lurralde okupatuetatik. Informazioa oso eskasa da Marokok ez duela lekukorik nahi han: zulo beltz bat da kazetariontzat, basamortuaren basamortua. Beste hainbat berriemaileekin batera kanporatu izan nintzen arren, kateatu egin nintzen herrialde horrekin eta hamar urte geroago lortu nuen eremu horretako hiriburua Aaiunera sartzea.

Saharar auziak agerian uzten du konponbidea berez oso erraza



Askatasunaren parkean egin dute egitaraua aurkezteko agerraldia. TXINTXARRI

Hilaren 27an, elkarretaratzea

Hilaren 27an 48 urte beteko dira Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zutenetik eta urtemuga horren bueltan zenbait ekimen antolatu ditu Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria eragileak. Batetik, Mendebaldeko Saharako herritarren aldeko elkarretaratzea deitu dute, egun horretan bertan, 19:30ean, Okendo plazan. *Maroko Saharatik at, independentzia!* izango da leloa. Bestetik, bi egun geroago, Kristina Berasain Tristan kazetariak *Sahara, herri bat erresistentzian* liburua aurkeztuko du Jalgi kafe antzokian, 19:00etatik aurrera. Aipatu taldeko kideek jarduerak horietan parte hartzea animatu dituzte herritarrek.

Bestalde, joan den urtarrilaren 27an Kalbario bideko SuperBM saltokiaren atarian egindako janari bilketa baloratu dute. Eskerrak eman dizkiete herritarrei ekimenarekin bat egiteagatik eta jakinarazi dute 700 kilo pasatxo kontserba, lekale, azukre, olio eta konpresa bildu zituztela. Produktu horiek guztiak Donostiara bidali zituzten, bertan sahararrei bidaltzeko presta zituzten. Martxoaren 9an abiatuko dira herrialderantz.

Eskertzekin segita, hilaren 8ko udalbatzarrean aurkeztu zuten mozioaren alde egin zuten alderdien babesa estimatu eta adierazpen horren aurka botoa eman zuen PSE-Eren jarrera gaitzetsi dute. "Ez dugu ulertzen, kontuan izanda oso baldintza gogorretan bizi direla errefuxiatuen kanpalekuan nahiz lurralde okupatueta".

dela: paperetan dagoena beteaztea. Ehunka ebazpen eman ditu Nazio Batuen Erakundeak, esanez sahararrek eskubidea dutela erreferendum bat aurrera eramateko. Bizi duten injustizia horrek jarraitzen duen artean, han izango naiz beraiekin batera euren eskubideak aldarrikatzen. **Konpromisoa bada zure kazetaritza egiteko moduaren ezaugarri bat?** Kazetariok erantzukizun handia dugula uste dut, are gehiago bizi ditugun garai ilun eta arraro hauean. Beti aldarrikatzen dut teletipoetatik at dagoen kazetaritza, kalekoa. Interesgarria iruditzen zait gatazka dituzten herrialdetara joan eta bertan bizi direnei ahotsa ematea, entzun eta kontatzeko ariketa bat baita egiten duguna.

Ez dut objektibotasunean sinesten eta ez dut inpartziala izan nahi. Iruditzen zait kaze-

tariok zintzoak izan behar dugula kontatzen ari garenarekiko. **Prentsako 'Argia' saria jaso duzu berriki eta ekitaldian "ahaztutako gatazka eta herrialde asko" daudela aldarrikatu zenuen.** Nire joera beti izan da gatazken ertzei begiratzea, ahaztutako herrietakoei eta Mendebaldeko Saharari bereziki. Munduan badaude asko eta asko ahaztuta daudenak, Kongon gertatzen ari dena adibidez: gure sakelako telefonoak egiteko erabiltzen duten baliabide naturala den koltanagatik sekulako sarraskia egiten ari dira eta ez gara horren berri izaten ari.

Nabarmendu nahi dut munduko gatazken jatorria, normalean, berdina izaten dela: estatu okupatzaileentzako, interes ekonomikoak zintzotasun politikoaren eta giza eskubideen gainetik daude.



Urteroko hitzorduan idazle batek eta hiru bertsolarik parte hartu ohi dute. TXINTXARRI



Lau ahotsetara idatzitako saioaren sortzaileetako bi herrikideak ziren. TXINTXARRI



Barre egiteko aukera zabala izan zuten bertaratutakoek. TXINTXARRI

Lerro artekotik abiatuta sortzen

Bederatzigarren bertso saio literarioa aurrera eraman du hilaren 17an Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak Xirimiri elkartearen. Taldea dinamizatzen duen Aintzane Usandizagak jarri dizkie gaiak Uxue Alberdi, Ane Labaka eta Maialen Lujanbio bertsolariei

Maitane Aldanondo

Negu amaieran loratzen dira mimosak eta garai horretan antolatuta ohi du Irakurle Txokoak bertso saio literarioa, azken urteetan bertan entzun den aipamena da. Batzuetan bazkaria, beste batzuetan afaria; beti, hitzordu gustagarria, lanerako ere. Bertsolari hirukotea jada klasiko bat da: Uxue Alberdi, Ane Labaka eta Maialen Lujanbio. Ez uste, ordea, berak ari-tzeagatik errepikakorra denik, lau ahotsetara idazten baita kontaketa. Aintzane Usandizaga herritarrek debuta egin du gaiak jartzen, eta emaitza, pasartez, bertsoz eta umorez betetako ia bi ordu izan dira.

Platerak jasota, Xirimiriko mahaletan lore sortak zituzten ontzitxoak eta liburuak zeuden. Irakurle Txokoko bi kidek mahai-kideak animatu dituzte mahai-

kideak beldurrak alde batera utzi eta taldera batzera. Usandizagak bertaratutakoak agurtu eta hitza eman die bertsolariei gauza bera egiteko. Lehen lanerako ezaguna zaion bat hautatu du lasarteoriatarrek, taldeko kide bilakatu baitu hirukotea: Labaka, beteranoa; Lujanbio, irakurle ezagunak datozenean azaltzen den irakurle intermitentea, eta Alberdi, kide berria.

Literatura iturburu

Hurrengo ariketarako abiapuntua, eta beste hainbatena, mahaletan utzitako ikasturteko irakur-

IRAKURLE TXOKOKO IRAKURGAIK OINARRI HARTUTA JARRI DIZKIE ZENBAIT GAI USANDIZAGAK

gaietan topatu du idazleak. Pasarte bat irakurri eta hortik atera du proposamena, beti buelta bat emanda. Sherwood Andersonen *Winesburg, Ohio* lanetik abiatuta honakoa egin du: Alberdi giza harremanetan moldatzen ez den idazlea da, pixkana harremanak eten eta berak sortutako Ane pertsonaiekin bakarrik hitz egitea erabaki du. Labakak ahotsa eman dion pertsonaia horrek, ordea, badoala esan dio. "*Hau ez da punto koma, Uxue, da punto. Hurrengo liburuan ez naiz agertuko*". Ez du onartu egileak: "*Beste inor ez baina, zu nirea zara*". "*Ba nik defendatzen det nirea naizela, suizidatzera noa, ezin zen bestela. Beraz, idatzizazu zuk nire eskela. Ezin naiz berragertu 'Goenkalen' bezala*". Eta istorio bira egin du elgoibartarrak: "*Eta azkenerako neuk*

egin dut alde, ni suizidatu naiz ta zu bizirik zaude".

Beste pasarte batzuetatik eguna elkarri begira pasatzen duten bi etxebizitza huts bilakatu ditu Lujanbio eta Alberdi, Labakak pilotutako ezezkoak bota ditu edota ihes egiteko poltsa prestatu dio Lujanbiori bi gauza praktiko eta kapritxo baten artean aukeratzera behartuta.

Ikurrak eta jolasak

Oihana Aranaren poema bati tiraka bertsolari bakoitzak bere burua zein puntuazio ikurrekin lotzen duen marraztu du paper batean, beste inork ikusi gabe, eta Alberdi ahalegindu da bi kideek hautatutakoa asmatzen. Hernaniarra, kaxotxak: "*azpi esanahien azpi esanahiak zehaztu nahiko lituzke*". Oker. Etenpuntuak aukeratu ditu: "*Ezer ez dela inoiz bukatzen adierazten du, tira. Puntualizatu leikeela dena, denak daukala segida. Azpi esanahien azpi esanahiak ondoren idazten dira*". Etenpuntuatzen Labaka omen zuen Alber-

BERTSOTAN EMANDAKO PISTEN BIDEZ LIBURU BANA ASMATU BEHAR IZAN ZUEN HIRUKOTEAK

dik, beraz, puntua egokitu dio. Berritro, oker. "*Lehenago beti puntu bat nintzen, beti sendo, beti harkaitz. Duela zazpi hila-betetik, baina, galdera ikur bat naiz*". Eta bere burua, parentesi erdia: "*Trekitzeko oso ausarta naiz, baina ixteko koldarra*".

Irakurketarik gabeko gaiak eta jolas bat ere izan dira: *Liburuzaina eta irakurle despistatua*. Txandaka aritu dira bertsolariak: behin, liburuzain, behin, liburu zehatz baten bila. Usandizagak poltsa batetik atera eta liburuzainari izan ezik gainerakoei erakutsitakoa, hain zuzen ere. Miren Amurizaren *Basa*, nahiko erraz identifikatu du Alberdik, Labakaren pistekin. Lujanbiori gehiago kosta zaio Alberdi *Ni ez naiz Mikel Laboa* lanaz ari zela jabetzea. Pentsa, *Teo, ikastolan* bota du saiakeren artean. "*Berritro agertu naiz oso banguardista*", onartu zuen Lujanbio, ilegorriaren abentura Labakarena zelako: *Teo, udalekuan*.

Azken bertso segidan pertsonaia horri aipamenak eta gai jartzaileari bere gaiak bezain lore aldrebesak izan dira. Agurrekoan hunkitu da Labaka, pozzgarri izan baitzaio "*norbere herrira bueltatu eta bizitzari kantatzea*". Lehenago ez bada, mimosen loraldian izango du aukera berri bat.



Pozik eta hunkituta bizitu zuten Ramonek eta Korok hilaren 17ko ospakizun eguna. TXINTXARRI

Denda bat baino (askoz) gehiago

Ormazabal loradendaren mendeurrena ospatzen hasi dira jabeak, goizetik hasi eta bazkalordura arte luzatu den egitaraua aurrera eramanda hilaren 17an. Urte hauetan guztietan erein dutenaren fruitua jaso dute lasarteoriatarrengandik

Maitane Aldanondo

Mendebete ezin da hitz gutxitan laburtu. Ez oparoa eta gogoangarria izan bada, bederen. Eta marka nahikoa pisuduna eta txalogarria ere bada egun bakarrean ospatzeko. Horrexegatik, datozen hilabetetan ekimenak aurrera eramango dituzte Ormazabal Loradendako ardura-dunek. Edonola ere, hilaren 17a jarduera bete izan zuten, eta edozein ospakizunen ezinbestekorik ez zitzaion falta izan. Are gehiago, soberan inoiz ez dauden estimuz, esker onez eta aitortzaz blaitu zituzten Ramon Ormazabal eta Koro Ortega agintariak, gertukoek, eta bereziki, lasarteoriatarrek.

Negozio bat irekitzean ezjakintasuna kudeatzeko gaitasuna ezinbestekoa da. 1924an egun Ormazabal Loradenda dena abian jarri zutenean ametsa izan zite-

keena egia bilakatu da. Zenbat gazi-gozo, oinaze eta lan pila daitzke 100 urtean? Mendebete ospatzen duten urteak baino gehiago, ziur; baina oreka ekarri eta jarraitzeko indarra dakartenak baino gutxiago ere. Martxan jarraitzea belaunaldiz belaunaldi egindako lanaren eta herritarren konfiantza lortu izanaren seinale da, eta aurrera begiratzen jarraitzeko oinarri sendoa. Ahulezia nabari badute inoiz, egun hori gogora dezatela.

Dianari ekin aurretik elkartu ziren txistulariak dendaren Kale Nagusiko atarian. Eskertza eta

GOIKOKALEN JOTZEKO ESKATU ZIETEN TXISTULARIEI: "LASARTEKO KALE GARRANTZITSUENA DA"

zorion hitzak gurutzatu zituzten talde argazkiaren ondoren, eta lehen pieza jo zuten. Pareko espaloiko Balerdi harategiko langileek "zorionak" oihukatu zioten eta txaloak entzun ziren. Eguna izango zenaren laburpena. Abiatzeaz zirela norabideaz galdetu ziren saltzaileak musikariei, eta Goikokalen hutsik ez egiteko esan zien. "Lasarteko kale garrantzitsuena da". Bertan bizi direnak bat etorri ziren.

Ordubete geroago, txistulariak Okendo inguruan bazebiltzan, Ormazabal denda aurrean zen berriro. Orain, ordea, dotore jantzita, bide beretik jo zuten Koro Ortega emaztearen, Julen eta Gaizka semeen, eta gainerako senideen zain. Argazkia egin eta komenturantz abiatu ziren. Bidean pare bat ezagunekin egindakoa, bertaratutako ia guztiekin egin zuten atarian; gerturatutako guz-

tiak agurtu baitzituzten. Besteak beste, EH Bilduko alkategai Estitxu Garmendia eta Pablo Barrio alkate ohia, EA Jko hiru zinegotziak, Jon Antxordoki, Goizalde Pildain eta Ainara Elicechea.

Txistulariek osatutako bide erditik sartu ziren elizara, senar-emazteak buru. Eliza barruan, Felix Garitanok agurtu zituen lehen ilaretan eseri ziren omen-duak. Harekin hizketan ari zela iritsi zen PPko zinegotzi Jose Manuel Palacio eta agurtu zuen, baita koruan zeuden mojak ere. Ana Urchuegia alkate ohia ere izan zen ormazabaldarrak gogoan izan dituen elizkizunean. Amaieran, hitz batzuk irakurri zituen saltzaileak, eta ezustean, bai Pello anaiak bai Julen semeak *Agurra* dantzatu zuten. Irtetean, bigarren sorpresa: vespak, gaita jotzaileak eta sei dantzari, Gaizka semea eta haren bikote Laura Trinanes, tartean. Muñeira bat dantzatu zieten omenuei eta Ana Laureanok zapi bana jarri zien, baita kapela Ormazabali ere.

Tarte batez jendea agurtzen egon ondoren, Okendora abiatu ziren. Iristean, herritar ugari zain zeuden, baita Erketzeko dantzari talde bat ere. Ezpatak eskuetan, arku bat osatu zuten haren azpitik pasa zedin familia. Agintariak besarkada batekin agurtu zituzten, tartean, udal ordezkariak, Agustin Valdivia alkatea buru; Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburu Arantza Tapia edota Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusi Eider Mendoza. Berriro *Agurra* dantzatu zieten eta oparitu berri zioten kapelaren ordezkatzeko txapela bat Ormazabali eta zapi bat Ortegari.

Herriko historiaren lekuko

Plazatik elkarrekin igo dira Mertzero gunera. Han, Alboka abesbatzako kideak, albo batean, Zero Settekoak, aurrealdean, eta jende ugari zuten zain. Lepo bete da aretoa. Aurkezpenaren ondoren, ongiatorria eman die denei Ormazabalek. Iñigo Urkullu lehendakariak bidalitako gutuna irakurri du eta birraitona-amor-

ORMAZABAL: "HERRIAK HILTZEN EZ UZTEKO AHALEGINA ETA ERANTZUKIZUNA DENONA DA"

nek abiatutako bidea gainbegiratu du. Gerra, uholdeak, industriaren krisia, lantegien itxiera... Denda erabat suntsitu zuten 1997ko uholdeak eta pandemia nabarmendu ditu. Herritarren elkartasunak eta erakundeen laguntzak aurrera egiten lagundu zien. "Pozik gaude herriari emandakoaz, baina, batez ere, herriarengandik jasotakoaz". Herrian lekutatutako denda soilik bakarrik izan beharrean, "herriarekin bat den familia negoziatzea izan da gure helburua" eta horretarako bidea izan da erakuslehoa, herritarrekiko komunikazio bide bilakatu eta kirola, kultura eta euskara sustatuz.

"Herriak hiltzen ez uzteko ahalegina eta erantzukizuna denonda", baina erakundeei eskatu die ahalegina; belaunaldi erreleboaren arazoari erantzuteko proiektuak eta laguntzak koordinatzea, gazteengan merkataritzarekiko interesa pizteko. Esker hitzak ere izan ditu, askorentzat, herriko alkate izandakoak, merkatariei erakundeak, herrikoak elkarrekin eta, nola ez, Aterpea "maitearentzat". Egunko zenbait unetan hezetu zaizkio begiak merkataritari, baina malakoetatik gertuen egon da "Maritxu" ama gogoratzean. "Zauden tokian, historia hau zugatik da. Eskerrik asko, ama".

Txoria txori hunkigarria interpretatu zuten Albokak eta Zero Settek, hitzetan entzundako ibilbidea iruditan ikusi aurretik. Jarraian, *Xalbadorren heriotzean* eskaini zuten bi taldeek. Musika-aren ondoren, hitzaldien ueña heldu zen. Lehena, Gipuzkoako Merkatarien Federazioko ordezkari Maite Balmaseda izan zen: "Lasarte-Oriarekiko eskuzabaltasuna, eguneroko lana, familia legatua, une zailetan izandako fedea eta ezaugarritzen zaituzten pasioa".

Jaietako omendu?

Mikro aurrean jartzen hurrengo, Aterpea elkarteko lehendakari Mabel Pedreira izan zen. Egun pozzagarria dela esan eta iraganean, orain eta etorkizunean erreferente izatea eskertu zien, baita belaunaldi gazteentzat eredu izatea opa ere. Hitzok esanda, elkarteko kideak aurreratu eta opari bat eman zioten Ramoni: Ormazabal abizenaren armarrria. Argazkia egin zuten elkarrekin, eta eseri aurretik, sanpedroetako omendu izatea proposatu zuten Pedreirak, izan ere, "herri gutxi

harro egon daitezke horren bitzta luzeko merkatalgoa izateaz".

Iradokizunari kasu egingo dion ez zuen erantzun segidan hitz egin zuen Agustin Valdivia alkateak; nahiz eta bere hitzetan onartzeko arrazoiak eman zituen. Saltokiaren eta udalerraren historia eskutik helduta doaz, "Ormazabalek zuzeneko lotura du Lasarte-Oriaren historia, garapen eta hazkundearekin, dena bat baino gehiago da". 38 urteko herri gaztean, ehun urte osatu dituen familia negozio bat izatea "pozgarria" dela uste du eta merkatariek herriaren alde egindakoa nabarmendu zuen. "Ramon, badakizu Lasarte-Oriako Udalak gure herriari bizia ematen dion ehun gisa merkataritzari ematen dion garrantzia".

Tapia sailburua izan zen hurrengoa. "Erronkei erantzuten jakin izan dien familia" direla nabarmendu zuen, halako ibilbideak "egokitzeko gaitasuna, malgutasuna eta erantzuten jakitea, bai negozioarenak bai herritarrenak" erakusten baitu, bereziki, sorrerako eta egungo negozioaren arteko aldea ikusita. Aurrera egiteko herritarren inplikazioa ere behar duela gogoratu zuen. "Guk ere lagundu behar diegu aurrera eramaten eta hurrengo urteetan ere jarrai dezan denda honek eta orokorrean merkataritzak".

Mendoza diputatu nagusiak itxi zuen hitz hartzeen txanda. "Ehun urte ez dira egunero ospatzen. Honek adierazten du komunitate sendo bat dagoela Lasarte-Orian", baieztatu zuen, iraupenari ekitaldian zehar ikusitakoa eta bertaratu zen jendetza argudioa berresteko frogatuta gisa gehituta.

Lierni Rekondok bertso bat abestu zuten eta hitzak jasotzen dituen plaka bat oparitu. Errepi-katutako eskuzabaltasun eta emateko gaitasun horri helduta, Ormazabalek eta Ortégak oroigarriak banatu zizkieten hainbat eragile-ri, besteak beste, TXINTXARRI-ri. Halakoetan tokatzen den *Zorionak zuri* abestu zuten aretoan zeudene, eta gero, zutik jarrita, Lasarte-Oriako ereserkiarekin amaitu. Bertaraturakoek mokadu bat jan eta hizketarako tartean izan zuten ondoko aretoan. Batekin eta bestearekin egon ondoren, eskuak opariz beteta eta bihotzak gainekaz, familia bazkarira joan ziren omendua. Etorrikodenaren lehen mugarrria besterik ez zen izan hilaren 17koa, ospatzen jarraitzeko beste aukerak etorriko baitira.



Herriko txistulariek dendaren atarian ekin zioten dianari. TXINTXARRI



Ramon eta Koro, erdian, familiako kideekin batera. TXINTXARRI



Pozaren Amari 'Agurra' dantzatu zioten Pello eta Julen Ormazabalek. TXINTXARRI



Galiziano senide eta Erketz taldeko dantzari batzuek Muñeira bat dantzatu zuten. TXINTXARRI



'Agurra' familiari dantzatu zioten Erketzeko kideek Okendo plazan. TXINTXARRI



Lierni Rekondok bertso eder bat abestu zuten dendaren jabeek. TXINTXARRI



Lasarte-Oriako ereserkiarekin abestuta amaitu zuten ekitaldia. TXINTXARRI



Aterpea merkatarien elkarteak lagunek armari bat oparitu zuten. TXINTXARRI

Bizitako guztia oraindik asimilatzeke, Ramon Ormazabalek eskerrak eman dizkie norbanako, eragile eta lasarteoriatar guztiei emazte Koro eta familia osoaren izenean, haiei guztiei esker egun "ahaztezin" batez gozatu zutelako hilaren 17an. Datozen hilabeteetan jarraituko dute mendeurrena ospatzen, jardura ugariaren bidez.

Eskuineko zutabearen topatuko duzun QR kode hori eskaneatuz gero mendeurrenaren ospakizun egun handiaren kronika, argazki galeria eta bideo guztiak ikusi ahal izango dituzu TXINTXARRI aldizkariaren atari digitalean.



Naroa Furundarena, Espainiako txapeldunorde

Ostadar SKTko Naroa Furundarena atletak jauzi hirukoitzeko proba lehiatu du Espainiako txapelketan. Bigarren postua eskuratzeko lehia bizia izan da eta bosgarren jauzian denboraldiko marka eginez zilarrezko domina jantzi du herritarrak

Txintxarri

Ostadar SKTko Naroa Furundarena herritarra pista edo short truck Espainiako txapelketan lehiatu zuten hilaren 18an, jauzi hirukoitzeko proban, eta podiumeko bigarren mailara igo zen Ourense, Galizian.

Lehiaketara joan baino lehen parte hartzaileen markak ikusita aukerak bazeuzkala onartu du Lasarte-Oriako kirolariak: "Ana Peleteiro kenduta, hurrengo bost atletak zentimetro eska-setan geunden, beraz, txapelketa onena egiten zuen eraman-goen zuten domina".


Herritarrak eta Ostadarreko prestatzaileek aurreikusitako modura joan zen lehiaketa. Ana Peleteiro galiziarra nagusi izan zen, 14,19 metroko jauziarekin lider jarri zen eta 14,32 metrokoak urrezko domina eman zion. Bostetik, talde urdin-beltzeko kirolaria eta beste lau jauzilarik

borroka bizia izan zuten podiumeko gainerako postuak betetzeko.

Hasieratik marka bila

Lehen jauzian bigarren postuan jarri zen herritarra, hurrengoetan ezin izan zituen aurkarien markak gainditu eta postuak jaisten joan zen. Furundarenak onartu duenez: "Helburua zen lehengo jauzian balekoa zen marka bat lortzea, mejorara pasa eta horrela 6 saltoak egiteko aukera izateko. Lehenengo jauzia ona izan arren, ez zen nahi bezain luzea izan, baina bestelako parte hartzaileak saltatzen ari zirena ikusita marka horrekin nahikoa izango zela ikusten genuen. Hurrengo hiru jauzietan, akats teknikoak, medio ez nuen esperotako marka lortu".

Lasarteoriatarak ez zuen amore eman, ordea. Bosgarren saiareran, bere denboraldiko marka



Furundarena (ezkerrean), podiumean. RFEA

onduz, 12,81 metroetara iritsi zen. "Jauzia guztiz ona ez izan arren domina lortzeko marka lortu nuen, baina nire ostean saltatzen zutenak zer egiten zuten itxaro behar genuen, hori dela eta, tentsio handiko momentua izan zen. Do-

minetako bat lortu nezakeela bagenekien, baina baita dominetatik kanpo geratu ere, hain zuzen ere, pare bat atletak balekoak ez ziren baina 12,80 metro inguruko jauziak egiten ari ziren".

13 metroak

Postuarengatik lehian ari ziren aurkariak ez zuten marka gainditu eta zilarrezko domina eskuan zuten herritarrak.

Hori ikusita, azken jauzian 13 metroko langa igarotzen saiatu zela onartu du Ostadarreko atletak: "Azken jauzian arriskatzea erabaki genuen entrenatzaileak eta biok, 13 metroetara gerturatu eta marka hobetzeko asmotan. Hain zuzen ere, distantzia hori gainditzeko forman nagoela pentsatzen dugu, nahiz eta txapelketan marka hori ez lortu. Saiakera horretan txapelketako jauzirik luzeena egin arren, ez zen balekoa izan eta beraz aire libre arte itxaron behar dugu".

Alkorta, Sabadellera

Absolutu mailakoaren ostean, hilaren 24an eta 25ean, 18 urtez azpiko Espainiako txapelketa jokatu dute Sabadellen, Bartzelonan. Ostadar SKTko Iraia Alkorta 60 metro lasterketan lehiatuko da. Urteko marken zerrendan hamabigarren da herritarra eta ondorioz, finalerdietarako sailkatzea du helburu talde urdin-beltzeko atletak.



Xabalinako podiuma. OSTADAR ATL.

Euskadiko txapelketan ere dominak

Ostadarreko kide gazteak ederki jardun ziren Jaurtiketa Luzeen 16, 18 eta 20 urtez azpiko Euskadiko txapelketan, hilaren 17an, Durangon. 18 urtez azpiko xabalina proban parte hartu zuten guztiek eta hiruk domina eskuratu zuten.

Aiala Ramos podiumeko gorenera igo zen 32,74 metroko jaurtiketarekin. Helene Martin (28,41 m.) eta Hodei Garcia (36,91 m.), aldiz, brontzeko postuan sailkatu ziren. Nora Manzanal ere finalean izan zen borrokan eta bosgarren (17,86 m.) amaitu zuten lehiaketa.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Ostadar SKT - Urola KE

Igandea. 13:00. Michelin kirol gunean.

GORENGOEN MAILA

Santo Tomas Lizeoa - Ostadar SKT

Igandea. 19:10. Berio, Donostian.

ERREGIONAL I. MAILA, IGOERA

Texas Lasartearra CF - Aloña Mendi B
Larunbata. 18:30. Michelin kirol gunea.

ERREGIONAL I. MAILA, KOPA

Asl. Mundarro KFE B - Ostadar SKT
Larunbata. 18:30. Zarkumendegi, Astigarragan.

ARETO FUTBOLA

I. MAILA

Mele Mele Samaniego Orixe Tolosala - Eguzki Arkupe Rehab.
Ostirala. 21:00. Uzturpe fr., Tolosan.

III. MAILA

Benetazko FT - Eguzki ISU Leioak
Larunbata. 15:00. Pio Baroja Kirol., Donostian.

GAZTEEN MAILA

Antigua Luberrri KE - Eguzki Bod. Ayesa
Igandea. 11:55. Gaska kirol., Donostian.

SASKIBALOIA

JUNIOR ERRENDIMENDUA

Ostadar SKT - Inar Optika ISB

Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

KADETE ERRENDIMENDUA

Saski Axular - Ostadar SKT

Igandea. 12:00. Benta Berri Kirol., Donostian.

KADETE PARTAIDETZA

Ostadar SKT - Goierri Buen Bocado
Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.

BOLEIBOLA

EUSKAL LIGA

CV Sestao - Ostadar SKT

Larunbata. 19:30. Sestao, Bizkaian.

EUSKAL LIGA, II. MAILA

Ostadar SKT - IKA Ekialde
Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

SENIOR MAILA

Ostadar SKT - Tolobolei

Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

JUBENIL MAILA

Arizmendi A - Ostadar SKT

Igandea. 11:30. Ibarra Kirol., Aretxabaletan.

IGERIKETA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTKo igerilariek infantil mailako Euskal Herriko txapelketa lehiatuko dute.

Larunbata eta igandea. Usabal kirol., Tolosan.

PILOTA

ESKUZ BINAKA, 2. INFANTILA

Oiarpe 3 - Intza KE 2

Ostirala. 18:00 (3. partida). Oiarzunen.

Hernani 3 - Intza KE 1

Igandea. 11:00 (2. partida). Udaleko pil., Hernanin.

ESKUZ BINAKA, 2. ALEBINA

Gazteleku 2 - Intza KE

Larunbata. 18:30 (1. partida). Arrate pil., Andoainen.

GINNASTIKA ERITMIKOA

ESKOLARTEKO TXAPELKETA

Landaberri ikastolako gimnastek taldean zein banaka alebin mailako eskolarteko lehen fasea jokatu dute.

Larunbata. 15:00. Karmelo Balda Kirol., Donostian.

LOKEko infantil taldeak eskolarteko lehen fasen parte hartuko du.

Igandea. 10:00. Karmelo Balda Kirol., Donostian.

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

CR San Cugat - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT

Igandea. 13:00. San Cugat del Valles, Bartzelonan.

EUSKAL LIGA, II. MAILA

Uni Bilbao Rugby B - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT

Larunbata. 15:00. Rekalde kirol., Bilbo, Bizkaian.

10 ETA 12 URTEZ AZPIKOA

Beltzak RTko errugbi eskolako gaztetxoek topaketa izango dute.

Igandea. 10:00. Michelin kirol gunean.

XAKEA

II. MAILA

Billabona D - Taula A

Larunbata. 16:00. Villabonan.

III. MAILA

Taula B - Gros M

Larunbata. 16:00. Blas de Lezoko lokalean.

ESKOLARTEKO TXAPELKETA

Taula Xake Klubak Lasarte-Oriako eskolarteko txapelketa antolatuko du.

Ostirala. 18:00. Antonio Mercero aretoan.

ATLETISMOA

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Ostadar SKTko Iraia Alkorta 18 urtez azpiko Espainiako txapelketan lehiatuko du.

Larunbata. Sabadell, Bartzelona, Katalunian.

LASTERKETAK

ZUMAIAKO HERRI LASTERKETA

39. Zumaiako herri lasterketaren barruan 5 km. eta 10 km. probak jokatu dira.

Larunbata. 17:00. Zumaian.

BIDASOAKO MARATOI ERDIA

Herriko ordezkariak Lomeña fatxadak Bidasoako Maratoi Erdian eta 10 km proban parte hartuko dute.

Igandea. 09:45. Irunen.

LEZO-JAIZKIBEL MENDI LAST.

Herriko ordezkariak Lezo-Jaizkibel X. mendi lasterketan lehiatuko dira.

Igandea. 10:00. Lezon.



Ostadarreko kirolaria, erlojupeko probako momentu batean. TXINTXARRI

Ahalegin eta ilusioz betetako txapelketa

Gipuzkoako Eslalom txapelketa gurpil aulkian lehiatu dute Michelin kirol guneko pilotalekuan. 11 kirolarik bi probari egin diete aurre ikusleen animo oihuen artean. Espainiako txapelketarako markak egiteko baliagarria izan da jardunaldia

Txintxarri

Txapelketa berezia jokatu zuten hilaren 18an Michelin kirol guneko pilotalekuan, Gipuzkoako Eslalom txapelketa gurpil aulkian. Bertara hurbildu ziren herritarrek parte hartzaileak animatu eta kirolarien ilusioa, emozioa, ahalegina eta sufrimendua ikusteko aukera ere izan zuten.

Guztira 11 lehiakide izan ziren: horietatik Ostadar Inklusioa taldeko zazpi, Kemen taldeko hiru eta Kantabriako parte har-

tzaile bat eta erlojupeko proba eta kanporaketa probari egin zioten aurre.

Markaren arabera, Espainiako txapelketarako txartela eskura zezaketen kirolariek. Horregatik, irteera puntua utzi eta euren onena eman zuten senide, lagun eta Lasarte-Oriako herritarren aurrean. Ibilbideko oztupoak gainditu eta helmuga igarotzean ezpainetan zuten irribarreak esfortzuak merezi izan zuela adierazten zuten.

Txapelketa amaitu eta kirolari guztien lana aitortzeko korridorea egin zuten ikusleek. Jarraian, oroigarria jaso zuten Goizalde Pildain Lasarte-Oriako kirol batzordeburu zein Isaac Palencia Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria saileko zuzendariren eskutik.

Inklusioaz betetako jarduera izateaz gain, oroimenerako eguna ere izan zen. Antolatzaileek eslamorean erreferente izandako Sergio Fernandez kirolaria ere ekarri baitzuten gogora.

Aitor Manso, 2023ko mendi lasterketen txapeldun

Iazko urteko txapelketen sari banaketa egin du Federazioak. Martxoaren amaieran denboraldi berriari ekingo dio gidariak

Txintxarri

Euskadiko Automobilismo Federazioak 2023. urtean antolatutako txapelketen sari banaketa egin zuten hilaren 18an Mungian, Bizkaian.

Hainbat izan ziren garaikurra jasotzera igo ziren gidari edo omenduak eta horien artean izan zen Aitor Manso herritarra. Mendi igoeretak modalitatean

jaso zituen Mansok sariak. Lasarteoriatarren sailkapen orokorrean, eserleku bakarreko zein 9. mailako sailkapenetan lehen postuan amaitu zuen lehia.

Bi txapelketa

2023 urteari agur esan berri, martxoaren 23an, Aiako igoeran hasiko du denboraldi berria gidariak. Lehian hasteko gogoe-



Manso, sari nagusia jasotzen. J. URIBE

kin dago Manso, baina lehenik kotxea fin dagoela probatu duela onartu du. Aurten gainera, Espainiako txapelketan ere parte hartuko duela aurreratu du.

Fase ezberdinetako hitzorduei aurre egin diete Intzako pilotariek

Nagusien 2. mailako Udaberri txapelketako azken jardunaldian irabazi eta finalerdietan da Intzako bikotea

Txintxarri

Intza Pilota Elkarteko kideek denetariko emaitzak izan dituzte. Batzuk lehen faseko azken jardunaldiak jokatzeko ari diren bitartean, besteak fase berriko lehenari egin zioten aurre.

Infantil 2. mailako bikoteek, esate baterako, etxean lehiatu zuten txapelketako azken aurreko jardunaldia.

Intza 2ko Itxaso Iparragirre eta Arkaitz Lasak Oiarpe 4 izan zuten aurrez aurre. Nahiz eta etxekoak ahalegindu, Oiarpe 4-18 gailendu zen.

Oier Jauregik eta Ekhi Maizek osatutako Intza 1 bikoteak "espero baina errazago" gainditu zuten Hernani, 18-5.

Nagusien 2. mailako trinkete zein Udaberri txapelketako kideek, aldiz, lehen faseari agur esan zioten. Udaberri txapelketan sailkapeneko lehen postua izan zuten Intzako bikoak Legazpiren aurka. Jon Pello Artetxe eta Peru Urdanpilleta ederki jardun eta nagusi izan ziren, 22-9. Garaipenari esker, lehiaketako finalerdietan da Intzako bikotea.

Txanponaren beste alde trinketean egon zen. Aritz Solano



Infantilen lehiako irudia. TXINTXARRI

eskuetatik osatua ez zegoenez, Haritza Diaz De Gereñuk jokatu behar izan zuen hitzordua. Diaz de Gereñuk ez du modalitate honetako entrenamendurik egin aurten eta gainera, aurrean lehen postua jokoan zuten Behar Zanako Esnaola izan zuten. Ongi egin zion aurre erronkari, baina 40-13 galdu zuten Intzako kideak.

Eta maila batzuetan dagoeneko bigarren fasea martxan da eta 3. infantil eta 2. mailako alebinak Ekialdeko txapelketari eman diote hasiera. Ederki borrokatu eta saiatu arren, biek galdu zituzten euren hitzorduak Alde Zaharra (18-8) eta Kuku 1 (16-14) bikoteen aurka, hurrenez hurren.



OSTADR IPAR MARTXA

Hitzorduz hitzordu, martxan

Ostadar Ipar Martxako kideek makilak hartu eta kilometroak eginez igaro zuten hilaren 17 eta 18ko asteburua. Lehen egunean otsaileko irteera egin zuten. Taldeko kideak Brinkolatik abiatuta Barrendiola urtegiko eta Legazpi arteko ibilbideko paisaiak gozatu zuten. Hilaren 18an, aldiz, taldeak Aspanogiren aldeko ipar martxarekin bat egin zuten Donostian. 6,1 kilometrotako bideari aurre egin zioten, Saguestik Haizearen orrazira kostako bidetik.

Jubenil taldeek, puntuak eskuratuz lehian aurrera

Jubenil I. mailako Ostadar B zein Texas Lasartearra taldeek euren hitzorduak gainditu dituzte liga erregularreko azken jardunaldian. Bi ekipoak igoera jokatzeko sailkatu dira. Ostadar Ck ez zuen neurketarik izan; Gipuzkoako kopa jokatu du

Txintxarri

Lasarte-Oriako Jubenil I. mailako futbol taldeek lehen faseko azken jardunaldia jokatu zuten hilaren 17an. Michelin kirol gunean. Ostadar B eta Texas Lasartearra taldeek puntuak eskuratu zituzten euren norgehiagoka zailetan eta igoera faserako sailkatu dira biak. Ostadar SKT Ck atsedena izan zuen.

Ostadar Bk multzoko buru amaitu duen Landetxa izan zuen aurrez aurre eta bina berdindu zuten. Aitor Igarritzen taldeak planteamendu zehatza zuen irundarrei aurre egiteko, ahulguneetan min egiten saiatzea, eta ongi joan zen. Etxekoei kontraeraso batean lortu zuten euren lehen gola. Baloia talde urdin-beltzaren eremuan lapurtu eta Landetxaren defentsaren bizkarrera baloia sartu zuten. Bigarrena, aldiz, korner batean.

Irungo taldeak, aldiz, urdin-beltzen defentsa hutsak baliatu zituzten bitan atea zulatzeke.



Jubenilen neurketako irudia. TXINTXARRI

Berdinketaren puntuarekin Ostadar B lehen multzoko lehen lauren artean sailkatu da eta horrek igoera fasea jokatzeko aukera emango dio Aitor Igarritzen taldeari.

Hurrengo fasea

Entrenatzailea pozarren dago ekipoak egindako lanarekin: "Taldeak gehiagora egin du. Hasiara zaila izan zen baina denak batera lanean emaitzak eta jokatzeko sentazioak hobetzen joan

gara. Bagenekien ez zela erreza izango baina ziur geunden lanaren bitartez egingo genuela".

Helburua igoera lehiatu eta bidean disfrutatzea dela onartu du entrenatzaileak. Horretarako "defentsa lana ondu eta automatismo batzuk fintzen saiatuko gara", adierazi du prestatzaile urdin-beltzak.

Texas Lasartearrako gazteek ere lortu dute aurrera egitea, laugarren multzoko lehenengo izan dira. Azken neurketa baino lehen dagoeneko igoerako txartela zuten, baina bigarren sailkatua den Intxurre KKE Bren aurka ez zituzten indarrak gorde eta 3-1 gainditu zuten aurkaria.

Igoera fasea sei taldeko lau multzotan banatuta jokatu dute. Itzuli bikoitzera izango da (hamar jardunaldi) eta multzo bakoitzeko lehenak egingo du aurrera finalerdietara.

Ostadar C taldeak, aldiz, laugarren multzoko zortzigarren amaitu du fasea eta Gipuzkoako kopan izango da lehian.



Benjamin mailako igerilariak, lehiaketa hasi baino lehen. BURUNTZALDEA IKT

Buruntzaldea IKTko txikiak, ederki Liga jardunaldietan

Estilo zail eta distantzia luzei egin diete aurre benjamin eta alebin mailako igerilariak Hernanin jokatu duen saioetan

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko igerilari txikiak euren ligako jardunaldi berriari egin zieten Hermaniko kiroldegian.

KZL Ligako benjaminak izan ziren lehenak igerilekura jauzi egiten. 2015-2014 urteetako hurrek bular estiloko 50 m. proba egin zuten eta 2013. urteko helduagoek 50 m. libre eta 100 m. bular.

Igeriketa taldeko hamabi gaztetxoek ederki egin zuten igeri eta bular estiloa ikasteko zail denez, arreta bereziaz jardun zirela azpimarratu dute prestatzaileak: "Koordinazio orokorra modu egokian mantentzeaz eta arautegia betetzeaz gain, ostikada egi-

teko modu egokia zaintzean bereziki".

Jarraian Alebin Ligako laugarren hitzordua izan zen. 400 m. libre eta 100 m. bizkar proba sendoei egin behar izan zieten aurre taldeko zortzi igerilariak. Proba luzean jarri zituzten gogoak Buruntzaldea IKTko kideek eta guztiek euren markak ondu zituzten. Taldeko hiru kide lehen postuetan izan ziren eta hiruek Gipuzkoako txapelketako gutxienez bigarren postuetan gaituzten zuten kronoa.

Saio horren ostean, atsedean txikia eginez, bizkar probari aurre egin eta txukun gainditu zuten lehia.

Taula Xake Klubeko A taldea bigarren mailan buru da

A multzoan lehen postuetan egoteko lehia bizia dago. Herriko taldeak lehen lauen artean sailkatu nahi du

Txintxarri

Taula Xake Klubeko taldeek Gipuzkoako txapelketako bosgarren jardunaldia jokatu zuten hilaren 17an. Zorte ezberdina izan zuten lehian ari diren bi ekipoek.

Bigarren mailako Taula Ako kideek etxean, Blas de Lezo kaleko lokalean, Gros K taldea hartu zuten. Donostiako taldea liderra zen eta saio zaila espero zuten Lasarte-Oriako xake jokalariek. Groseko taldean, gainera, Erlantz Sanchez herritarra aritu zen.

Miguel Maria Baroja, Jose Inazio Etxeberria eta Juan Cruz Figueras kideek euren partidak irabazi zituzten, azken horrek Sanchezen aurka eta Ander Etxaurik ezin izan zuten bere aurkaria gainditu.

Helburua lehen lauren artean sailkatu eta jaitsiera saihestea bada ere, eskuratutako puntuei esker, oraingoz A multzoko lehen postuan da herriko taldea. Baina hiru puntuko alde dago Taula eta seigarren sailkatuaren artean. Lehia handia izango da geratzen diren saioetan eta lehen eronka laugarren postuan den Billabona D izango dute hilaren 24an.

Taula B taldeak Bergaran jokatu zuten hirugarren mailako hitzordua eta bertan 2,5-1,5 izan zen markagailua. Taulako kide Diego Alonsok garaipena erdietsi zuen eta Juan Luis Varelak berdinketa; Alejandro Sanchez eta Mikel Manteolak, aldiz, porrotak. Hurrengo saioa etxean jokatu du Gros Mren aurka.

Alex Saleta, Espainiako selekzioko hamabostekoan

Espainia eta Geogiaren arteko norgehiagoka jokatu du herritarrek. Georgiak bigarren zatian irabazi du neurketa

Txintxarri

Hilaren 11n Espainiako selekzioarekin debuta egin bazuen, oraingoan Alex Saleta herritarrek hamabostekoan hasi zuen Geogiaren aurkako neurketa. Tbilisin, Georgian, jokatu zuten lehoiek hilaren 17an Europako Nazioen Kopako multzoko azken jardunaldia.

Espainiako Selekzioak defentsa lan ederra egin zuen lehen zatian eta borroka ederra ikusi zen bi taldeen artean; 7-3koa zen markagailua. Bigarrenean, aldiz, kopako indarreko txapeldun den Georgiak bere jokoa eginez,



Saleta (atzean), ostikadari begira. FERUGBY

txartel horiak bultzatu eta Espainiaren hutsak baliatuz alde handitu zuen. Ahalegindu arren, gorriek ez zuten punturik egiterik izan eta ondorioz, 38-3

amaitu zen neurketa. Saletak 56. minutuan utzi zuen zelaia.

Espainiako selekzioak A multzoko bigarren sailkatu bezala aurrera egingo du txapelketan. Martxoko lehen asteburuan jokatu dira finalerdiak eta Espainiak Lisboara egingo du bidaia; Portugal izango du aurkari. Paris finala izango dute helburu.

Beste emaitzak

Lasarte-Oriara itzuliz, 14 urtez azpiko taldeak Bera Bera B/Stade Hendayaisen aurka neurketa jokatu zuen, Michelin kirol gunean. Aurkaria 12-38 gailendu zen.

18 urtez azpiko taldeak, aldiz, Astin izan zuen norgehiagoka La Unicaren aurka. Ederki borrokatu zuten bi taldeek eta etxekoak 31-26 gainditu zituzten iruindarrak. Eneko Sanchez herritarrek bi entsegu egin zituen.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Bidali zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.


OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 23



Larunbata, 24




Igandea, 25




Astelehena, 26



Asteartea, 27



Asteazkena, 28



Osteguna, 29



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 23	ACHA-ORBEA
LARUNBATA, 24	LASA
IGANDEA, 25	LASA
ASTELEHENA, 26	URBISTONDO
ASTEARTEA, 27	GANDARIA-URIBE
ASTEAZKENA, 28	DE ORUE
OSTEGUNA, 29	DE MIGUEL

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
 DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943-33 60 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

SUDOKUA

3	4	2	1			6		7
	9	7		2		1		8
		1		7			2	
		9	6			7		
1		5		8		4		2
7					5			
	1		4		9	2	7	
	2			5			8	
9			8		2			1

Sudoku10.net

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Zabaleta Auzolanen urteko batzar orokorra

Zabaleta Auzolan elkarteak urteko batzar orokorra egingo du martxoaren 1ean, 19:00etan Basotxo plazako lokalean eta auzokideak gonbidatzen dituzte bilerara gerturatuzera. Beste gai batzuen artean, 2023ko kontu emateak eta 2024rako proposamenak izango dituzte hizketa-gai.

Alboka Abesbatzaren urteko ohiko batzarra

Alboka Abesbatzak bere bazkideei dei egiten die, hilaren 29an ostegunarekin Mirentxun egingo den urteko batzar orokorra gerturatu daitezen. Ohiko bilera 19:30ean hasiko da eta ez-ohikoa aldiz 20:00etan.

txintxarri



KORRIKA-ko zenbaki berezia martxoaren 15ean



Zure komertzioa bertan iragarri nahi duzu?
Jar zaituz gurekin harremanetan!

publizitatea@ttakun.eus | 646 82 44 66 | 943-37 14 48

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

ALOKATU
Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldeu deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKARIA
Emakume euskalduna etxeko lanak edo pertsona edadetuei laguntzen lan egiteko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.
Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Umeekin esperientzia daukat. Harremanetarako telefonoa: 695 18 41 79.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketa...) FP-2 mekanizatu egina dut. Zubietan bizi naiz. 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. 602 08 25 83.

Emakume batek bere burua eskaintzen du ume edo helduak zaintzeko, larunbatetan, goizeko hamaiketatik arratsal-

deko zazpietara arte. 631 67 78 52.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA
Haritz egurra saltzen dugu, tximia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz



www.txintxarri.eus

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdallete, Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 23



LASARTE-ORIA Erakusketa

Joan den urteko Itsaspeko Zinema Zikloko irudi onenekin esposizio bat ondu dute. Hilaren 29ra arte egongo da zabalik.

Kultur etxeko 1. solairua, 17:00etatik 21:00etara.

LARUNBATA 24

LASARTE-ORIA Antzerkia

Helduentzako antzerkia iragarri du udalak; *Lagun Beltz asko* obra erakutsiko du Ados Teatra antzerki konpainiak. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da; 6 euro balio dute horiek.

Kultur etxeko auditorioa, 20:00etan.



LASARTE-ORIA Dantza

Plaza Dantza egitasmoan parte hartzen ari diren kideak Okendo plazan elkartuko dira igandean, hilaren 25ean, muxikoen saioa egiteko. Herritarrak animatu dituzte saioan nahiz astero aurrera eramaten dituzten entseguetan parte hartzera.

Hilak 25, igandea, Okendo plaza, 12:00etan.

IGANDEA 25

LASARTE-ORIA Dantza

Plaza Dantza egitasmoan parte hartzen ari diren kideak Okendo plazan elkartuko dira igandean muxikoen saioa egiteko. Herritarrak animatu dituzte saioan nahiz astero aurrera eramaten dituzten entseguetan parte hartzera: Sasoeta ikastetxeko gimnasioan elkartzen dira astearteetan, 20:00etan. *Okendo plaza, 12:00etan.*

LASARTE-ORIA Zinema

Haurrentzako zinema proiektzioa; *Thabo y el caso del rinoceronte* proiektatuko dute. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da; 4 euro balio dute horiek.

Kultur etxeko auditorioa, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Helduentzako zinema proiektzioa iragarri du udalak; *La zona de*

interes proiektatuko dute. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da; 6 euro balio dute horiek. *Kultur etxeko auditorioa, 19:30ean.*

ASTELEHENA 26

LASARTE-ORIA Proiektzioa

CIMASUB XVI. Itsaspeko Zinema Zikloaren aldi honetarako hautatutako ikus-entzunezkoen hirugarren eta azken proiektzioa. Jarduera hori Danok Kide Guraso Elkartearekin elkarlanean aurrera eramango dute.

Kultur etxeko auditorioa, 19:00etan.

ASTEARTEA 27



LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Mendebaldeko Sahararen askatasuna eta errefuxiatu bizi diren sahararre elkartasuna eta berotasuna adierazteko elkarretaratzea deitu du Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak. *Maroko Saharatik at, Independentzia* lemapean egingo duten kontzentrazioa aurrera eramango dute. *Okendo plaza, 19:30ean.*

ASTEAZKENA 28

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Semblante Andaluz elkarteko kideek euren jaioterriaren egun handia ospatuko dute, ohorezko ardoarekin topa eginda. Luntxa ere egingo dute elkarteko bazkide eta gonbidatuentzat; udal agintariei ere harrera egingo diete.

Semblante Andaluz elkarte, 20:00etan.

OSTEGUNA 29

LASARTE-ORIA Aurkezpena

Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak antolatuta, Kristina Berasain Tristan kazetariak *Sahara, herri bat erresistentzian* liburuaren aurkezpena egingo du. Ostean, solasaldia izango dela iragarri dute antolatzaileek.

Jalgi kafe antzokia, 19:00etan.

MARTXOAK 3

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Semblante Andaluz elkarteak 30. Andaluzia Eguna ospatuko du eta honako egitaraua iragarri du:

11:30ean, meza rozieroa Arantzazuko Ama Birjinaren parrokan. Semblante Andaluz abesbatzak parte hartuko du elizkizunean.

14:00etan, herri bazkaria elkartearen egoitzan.

17:30ean, Semblante Rociero abesbatzaren emanaldia.

Arantzazuko Ama Birjinaren parrokia eta Semblante Andaluz elkarte, 11:30etik aurrera.

txintxarri

*Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz*

Zure iragarkia jarri nahi duzu? Jar zaitez gurekin harremanetan!

Deskontu bereziak herrikoentzat!

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66 

Hiru Aldetako tortilla, Gipuzkoako finalista

Edu Etxeberriak prestatzen duen jakia ezaguna eta preziatua da herrian. Patata tortillen Euskadiko txapelketako Gipuzkoako finalista izendatu dute eta hilaren 28an aukera du hurrengo fasera sailkatzeko, Donostian aurrera eramango duten ekitaldian

Txintxarri

Pertsonak bezainbeste modu daude patata tortillak egiteko; bakoitzak du bere estiloa. Horretan trebea da Hiru Aldeta tabernako (Pintore kalea) jabe Edu Etxeberria, egunero prestatzen dituenak oso ezagun eta preziatuak direlako bezeroentzat; bizkor ibili ohi dira, pintxoak azkar bukatzen direlako. Euskadiko txapelketan argi geratu denez, epaimahaiko kideek ere estimatu dute herritarraren lana, lehiaketa horretako Gipuzkoako finalista izendatu baitute beste 11 establezimendurekin batera.

Probintzia horretako finala hilaren 28an jokatu dute, Do-

nostian. Bizkaikoa, berriz, 26an izango da, eta, Arabakoa, 27an. Etxeberriak patata tortilla tradizionalen modalitatean lehiatuko du (bestean, patata eta arrautzaz gain, bakailaoa erabiltzen dute partaideek) eta hiru lehenengo artean geratuz gero Euskadiko finalean ariko da, Bilbon, martxoaren 9an. Egun hori ez dute ausaz aukeratu antolatzaileek, Patata Tortillaren Nazioarteko Eguna baita.

Euskadiko lehen txapelketa

Joan den abenduan aurkeztu zuten Euskadiko aurreneko txapelketa. Rafael Garcia Santos kritikari gastronomikoak sus-

tatu du eta erakunde ugariren laguntza jaso du. Garcia Santos beraren hitzetan, ekimenaren helburua da "jauzi kualitatibo bat" ematea, uste duelako EAEko ostalariek prestatzen dituzten patata tortillak ez daudelako euskal gastronomiako jaki gehien pare oraindik, hau da, "maila altuenean".

Ildo horretatik, txapelketaren beste xedeetako bat da tortillak egiten espezializatuta dauden establezimenduak sortzea bultzatzea eta jaki hori prestatzeko moduz hausnartzea, "elaborazio estilo eta pertsonalitate jakin bat definitzeko, Betanzos edota Santanderren egin duten moduan".



Kolore bizikoa eta urtsua da Hiru Aldeta tabernako patata tortilla. EDU ETXEBERRIA



Edu Etxeberria, Gipuzkoako txapelketako finalista izendapenarekin. EDU ETXEBERRIA



Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



errigora.eus



600 85 75 86

www.electricidadarregui.com



Zatoz dendako erakusketa ikustera!

Material elektrikoa · Argiak · Etxetresna elektrikoak · TB/Hi-Fi · Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

Etxeko sabairako argi berritzaileak!

- Sabairako lanparak
- Lanpara modelo ugari aukeran
- Etxea argiztatzeko aukera zabala